

## **BILBOKO OSOKO BILKURARI AURKEZTEKO PROPOSAMENA**

### **Akordio proposamena**

Udalbatzak Gobernu-Taldeari eskatzen dio Colón de Larreategi kaleko 13. zenbakian dagoen udal titulartasuneko eraikina eta lurzorua saltzearen ondoko emaitza ekonomikoa alokairu-erregimeneko udal etxebizitza berrien sustapenera bidera dezala, Udal Etxebizitzak erakundearen aurrekontuetara kreditua bideratuz.

### **Azalpena**

Colón de Larreategi 13 eraikina eta lurzorua balio ekonomiko handiko udal ondare higiezin da, hortaz, eraikina saltzearen irabazi garbia alokairu-erregimeneko parke publikoa handitzeko aukera gisa hartu behar luke Bilboko Udalak.

Udal Gobernu Taldeak ondasun hori saltzeko erabakia hartua duenez, eta operazio hori dagoeneko egikarituta dagoela ikusita, Udal honek aukera berri eta ona galdu du 6. barrutia osatzen duten auzoetan Udal Etxebizitza izateko. Beraz, aukera bat galtzen da auzo horietako etxebizitzaren batez besteko prezioan eragiteko eta, gainera, gazteak beste auzo edo herri batzuk aukeratzera behartuko ditugu.

Udal-etxebizitzaren Memorian ageri da, gaur egungo 4.200 etxebizitzetatik batere ez dagoela 6. barrutian, eta etxebizitza sozialak Otxarkoagan, Cortesen, Atxurin edo San Adrianen kontzentratuta daude. Gainera, kontuan izan behar da 1990. urtean, duela 30 urte, Udalak 6.900 etxebizitza zituela. Beraz, agerikoa da, etxebizitza kopuruan asko galdu dugu. Beste datu esanguratsu bat: ia 10.000 eskatzaileko itxaron-zerrenda dagoela, eta urtero kontratuen berrien kopurua 150 ingurukoa dela bakarrik.

Alokairuko aukera indartzea helburu duen Euskadiko Etxebizitzaren 3/2015 Legearekin lerrotatuta, Bilboko Udal Etxebizitzaren Plan Estrategikoak (2020-2023) etxebizitza eskuragarrien parkea handitzea edo etxebizitza gizarteratzeko tresna gisa erabiltzea jasotzen du bere ardatz estrategikoen artean.

Alokairuko udal-etxebizitzaren zerbitzuaren helburuak ugariak dira. Kontua ez da premia handiena duen jendearen bizitegi-arazoa konpontzea bakarrik, bilbotarren errotzea ere bilatzen da, eta merkatu libreko prezioei kontrapisua egitea. Parke askoz ere ugariagoa eta kalitate handikoa izatea da benetako aterabidea, irtenbide iragankorrak bilatu beharrean (hala nola errentariarentzako diru-laguntza finkoak ematea).

Horregatik guztiagatik, Colón de Larreategi saltzeagatik lortutako irabazia Bilboko bizitegi-errealitatea aldatzeko palanka sendo gisa erabiltzea proposatzen dugu, Udal Etxebizitzaren aurrekontu-gaitasuna indartuz, epe labur eta ertainean sustapen berriak finantzatu ahal izateko.

## **PROPUESTA AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO**

### **Propuesta de acuerdo**

El Pleno Municipal insta al equipo de Gobierno a que destine el resultante económico de la enajenación del edificio y suelo de titularidad municipal en Colón de Larreategi 13 a la promoción de nueva vivienda municipal en régimen de alquiler, mediante un crédito plurianual al OAL Viviendas Municipales de Bilbao.

### **Justificación**

La enajenación de patrimonio inmueble municipal de alto valor en el mercado libre, como es el caso concreto del edificio y suelo de Colón de Larreategi 13, debe ser tenido en cuenta por el Ayuntamiento de Bilbao como una oportunidad para invertir la ganancia neta de esta operación a la promoción o incremento de parque residencial público en régimen de alquiler.

Una vez que el Equipo de Gobierno municipal actual tiene tomada la decisión de enajenar dicho bien, y que la operación está ya tramitada y probablemente ejecutada, este Ayuntamiento pierde una nueva y buena oportunidad de contar con Vivienda Municipal en los barrios que comprenden el Distrito 6. Se pierde, en sí, una oportunidad para actuar sobre el precio medio de la vivienda en estos barrios y además se obliga a su juventud a optar por otras zonas.

Las Memorias de Viviendas municipales muestran que de las 4200 viviendas actuales, carecemos de parque en el Distrito 6, y que la vivienda social se concentra en Otxarkoaga, Cortes, Atxuri o San Adrián. Además hay que tener en cuenta que en 1990, hace 30 años, el Ayuntamiento contaba con 6900 viviendas, por tanto, se ha perdido parque público. Otro dato significativo es que hay una lista de espera de casi 10.000 peticionarios, y un movimiento de contratos anual de solo unos 150.

Alineado con la Ley 3/2015 de Vivienda de Euskadi, que persigue el fortalecimiento de la opción en alquiler, El Plan Estratégico de Viviendas Municipales 2020-2023 recoge entre sus ejes (1) incrementar el parque de vivienda asequible o (3) utilizar la vivienda como instrumento de inclusión social. Hay que tener en cuenta que el fin que se persigue con un servicio de vivienda municipal de alquiler no es solo solucionar el problema habitacional de la gente más necesitada, que también se busca el arraigo de su ciudadanía y que también tiene gran poder como regulador de los precios de mercado libre. Un parque mucho más extenso y de alta calidad es la alternativa a soluciones efímeras como la subvención fija al arrendatario.

Por todo ello, proponemos, que el Ayuntamiento utilice la ganancia de la enajenación de Colón de Larreategi como palanca de cambio en la realidad habitacional de Bilbao, reforzando la capacidad presupuestaria de Viviendas Municipales, de modo que pueda financiar nuevas promociones a corto y medio plazo.

Bilbon, 2021eko urriaren 11n